



2017ko memoria
SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA





Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.

20140 Andoain

T. 943 592 556 / 629 350 095

kluster@soziolingvistika.eus

www.soziolingvistika.eus

f slkusterra **🐦 @slkusterra**

**2017ko
memoria**



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<**

KLUSTERRAREN BAZKIDEAK

OHOREZKO
BAZKIDEA:



Artez Euskara Zerbitzua



Gipuzkoako Urtxintxa Eskola



Aztiker Ikerguna



Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)



BAI Euskarari Elkartea



Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)



Bermeoko Udala



Hernaniko Udala. Euskara Zerbitzua



Donostiako Udala



Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)



Ebete elkarte



HUHEZI Koop. E. Mondragon Unibertsitatea (MU)



Elhuyar Aholkularitza



Kutxa



Emun Kooperatiba Elkartea



Laboral Kutxa



Erandioko Udala



Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETLE)



Errenteriako Udala



Sakanako Mankomunitatea



ikastolenelkartea

Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartea



Soziologia II saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)



Euskaltzaleen Topagunea



Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)



Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)



Zumaiako Udala



Eusko Ikaskuntza

NORBANAKO
BAZKIDEAK:

92 pertsona



SARRERA..... 6. orria

7. orria**NORTASUNA,
ERABAKI-GUNEAK ETA
BULEGO TEKNIKOA**



PROIEKTUAK..... 9. orria

- Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak 10 or.
- UEMAKo herrietako Kale neurketak 11 or.
- Gune berezietako hizkuntza erabileraren neurketak 11 or.
- Euskararen Adierazle Sistema (EAS) 12 or.
- Aldahitz 13 or.
- Arrue 14 or.
- D ereduko kirola 15 or.
- Liderrak eredu 16 or.
- Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa 17 or.
- Berba-lapiko 18 or.
- Berbekin 19 or.
- Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia) 20 or.
- Ahozkotasuna: prestakuntza saioak eta tailerrak 21 or.
- Jendurrean Erabili 22 or.
- Gipuzkoa Berdinago 22 or.
- HAUSNARTU, euskal soziolinguistika sariak 23 or.
- Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 24 or.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria 25 or.
- Soziolinguistika Albistaria 26 or.

27. orria**LANKIDETZAK,
HARREMANAK ETA
BESTELAKOAK**





SARRERA

Berriro ere aldaketa urtea izan da 2017koa Soziolinguistika Klusterrean, agian, berezkoa duelako aldaketa hau bezalako ikergune dinamiko batek. Nire lehen urtea izan da lehendakari gisa eta horrek aukera ederra eman dit Klusterra hobeto ezagutzeko. Ilusioz ekin nion nire egitekoari udaberrian eta ilusio berezia egin zidan nire lehen jendaurrekoak, neure herrian izan baitzen, Gernikan.

Hausnarketa estrategikoan erabakitako lehentasun batzuk landu ditugu urtean zehar, batez ere komunikazioa eta proiektuen kudeaketa. Horietan bietan aurrerapen nabarmenak egin ditugu eta sakontzen jarraitzeko asmoa dugu.

Proiektuetan bete-betean aritu gara. Urte berezia izan da Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren emaitzak aurkeztu direlako, eta, horrek beti sortzen du aztoramendua eta lan-karga. Erabileraren emaitzek oihartzun handia izan dute komunikabideetan; batetik, azterketa bera gizartearen interesekoa delako, eta, bestetik komunikazio arloan egin dugun lanak eta ahaleginak bere isla izan dutelako. Beste proiektu batek ere oihartzun zabala izan

du: Gipuzkoa Berdinago proiektuaren barruan eragile nagusiekin jendaurrean euskaraz jarduteko landutako ekimenak.

Bulegoan adorez eta arrakastaz egin zaie aurre egon diren pertsona aldaketei: batzuek alde egin dute eta beste batzuk itzuli egin dira. Erritmo bizi-biziko urtea izan da, berriro ere.

Beste behin ere, kluster izaerari erantzuten saiatu gara eta horren seinale dira proiektuetan zuzenean parte hartu duten askotariko eragileak: Klusterreko bazkideak, administrazio publikoetako langileak, unibertsitateko irakasleak eta gizarteko bestelako eragileak (sindikatu, enpresarien elkarte, kirol talde, enpresa eta abar). Proiektuen berri ematen ere Euskal Herri osoan ibili gara eta nazioartean ere izan dugu presentzia.

Gainera, hori guztia aurrekontu orekatuekin lortu dugu, beste behin ere.

Eta, horrelaxe jarraituko dugu lanean, aurrera begira, ekin eta ekin, euskara biziberritzeko beharrezko ezagutza sortuko duen bestelako egitura indartsuago eta sendoago baten hazia ereiten ari garelakoan.

Maddi Etxebarria
Lehendakaria

NORTASUNA, ERABAKI-GUNEAK ETA BULEGO TEKNIKOA:

2

NORTASUNA

Soziolinguistika Klusterra irabazi asmorik gabeko elkartea da eta Berrikuntzako Bitarteko Erakunde izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile gisa.

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren erronka, interes eta beharrei erantzuteko. Hori lortzeko lanean diharduten bazkide, erakunde publiko, gizarte eragile, zientzia eragile eta bestelako eragileen soziolinguistika alorreko baliabide eta gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako elkarlanean ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuak garatzen ditu, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika arloko I+G+Bko erreferentziazko agente izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** Metodo zientifikoan oinarrituta autonomiaz jarduten du.
- **Elkarlana:** Osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizarte-konpromisoa:** Euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia. Eragile ezberdinekin elkarlanean egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez.

ERABAKI-GUNEAK

Batzar Orokorro

Bazkide guztiak dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzeko dituzte.

Zuzendaritza Batzordea

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. Gaur egun ondorengoek osatzen dute:

Lehendakaria:

> Maddi Etxebarria (Elhuyar Aholkularitza)

Lehendakariordea:

> Mertxe Mugika (Euskaraz Koop. Elk. - AEK)

Diruzaina:

> Maite Asensio (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)

Idazkaria:

> Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra)

Bazkideen ordezkariak:

> Estiñe Astorkia (ARTEZ Euskara Zerbitzua)

> Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea)

> Josune Etxaniz (Eusko Ikaskuntza)

> Eider Alustiza (EMUN Koop. Elk.)

> Nekane Arratibel (HUHEZI Koop. Elk. – Mondragon Unibertsitatea)

BULEGO TEKNIKOAK

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2017an 10 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Uxo Anduaga Berrotaran
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Imanol Larrea Mendizabal (zuzendaria)
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain

3

PROIEKTUAK

- Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak 10 or.
- UEMAko herrietako Kale neurketak 11 or.
- Gune berezietako hizkuntza erabileraren neurketak 11 or.
- Euskararen Adierazle Sistema (EAS) 12 or.
- Aldahitz 13 or.
- Arrue 14 or.
- D ereduko kirola 15 or.
- Liderrak eredu 16 or.
- Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa 17 or.
- Berba-lapiko 18 or.
- Berbekin 19 or.
- Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia) 20 or.
- Ahozkotasuna: prestakuntza saioak eta tailerrak 21 or.
- Jendaurrean Erabili 22 or.
- Gipuzkoa Berdinago 22 or.
- HAUSNARTU, euskal soziolinguistika sariak 23 or.
- Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 24 or.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria 25 or.
- Soziolinguistika Albistaria 26 or.

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak:

“Zenbat erabiltzen euskara kalean?”, galdera horri erantzuten dio ikerketak. Euskal Herrian sorturiko metodologia honek hizkuntzen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu diren datuak eskaintzen ditu. Neurketaren I. edizioa 1989an egin zen, eta azkena, VII.a 2016an burutu da. Hogeita zazpi urtetan zazpi argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan. 2016. urtean landa-lana 144 udalerritan egin zen, eta 2017an emaitzen azterketa eta zabalpena burutu da.

Kale-Neurketaren VII. edizioaren emaitzek inoiz baino oihartzun handiagoa izan dute, azken urteotan euskararen erabileraren nondik norakoak kezka handia eragin du, eta gaiaren inguruan hainbat artikulu eta iritzi kaleratu dira prentsa idatzian nahiz sare sozialetan. Hausnarketa horietan sakontzeko Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera “Euskararen erabilera: egoera, bilakaera eta norabidea, datuen argitan” ikastaroa antolatu da EHUren udako eskaintzaren barruan.

Bestalde, 2002an hasitako ildoari jarraituz, 2017an ere herri mailako kale-neurketak egin dira. Orotara, 44 herri aztertu dira. Ikerketa horiek berebiziko garrantzia dute herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko, eta euskararen aldeko sustapen-planak burutzeko.



Zuzendaria | Olatz Altuna

Klusterreko teknikariak | Belen Uranga, Asier Basurto, Maialen Iñarra

Batzorde Zientifikoa | Paula Kasares, Eneko Anduaga, Eneko Gorri, Iñaki Iurrebaso, Iñaki Martínez de Luna, Xabier Isasi

Babesleak:



eta beste 36 udal

UEMAko herrietako Kale neurketak

UEMA osatzen duten udalerri guztietan kale-neurketak egin dira, eta baita UEMAkoak ez diren Tolosaldeko beste 13 herrietan ere. Guztira, 95 herrietako datuak bildu dira, beraz.

Udalerri euskaldunen errealitatea gertutik ezagutzeko aukera eskaini du ikerketa honek. Emaitzek erakutsi dute herri hauen hizkuntza-egoerek antzekotasunak badituztela, baina baita ezberdintasun esanguratsuak ere. Euskararen erabilera orokorrari erreparatuta herri asko dira %80tik gorako erabilera dutenak, badira, ordea, %50etik beherako erabilera dutenak ere.

Batean eta bestean behatu diren kaleko elkarrizketetan, solaskideen hizkuntza- portaera nolakoa den ezagutu ahal izan da ikerketa honekin.

Zuzendaria | Olatz Altuna

Klusterreko teknikariak | Belen Uranga, Maialen Iñarra

Partaideak | UEMA (Miren Seguro eta Axun Larburu)

Gune berezietako hizkuntza erabileraren neurketak

Udalek dituzten beharrei erantzuteko bi ikerketa egin dira, kale-neurketaren metodologia berariaz egokituta:

Batetik, San Mames estadioan jokaturako futbol partidu bateko hizkuntzen kale-erabilerari buruzko datuak jaso dira. Bilboko udalak ikerketa honekin kirol partidu jendetsu hauek hirian duten inpaktua ezagutu nahi izan du.

Bestetik, Elgoibarren haur eta nerabeen kirol entrenamenduetan erabileraren neurketak egin dira. Haurren euskararen erabilerak hizkuntzaren biziberritzean duen garrantzia ikusirik, eta eskola euskararen erabilerarako arnasmune bihurtzen ari dela kontuan izanik, eskolaz kanpo haurren hizkuntza-erabilera zer nolakoa den jakin nahi izan du Elgoibarko udalak.

Zuzendaria | Olatz Altuna

Bulegoko langilea | Maialen Iñarra

Babesleak



Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

2013an abiatuta, honako faseak izan ditu: 2013-2014, diseinua eta egituraketa; 2015-2017, exekuzio-fasea. Bere lehen emaitza eragile bakoitzak duen webgunean argitara emandako EAS webgunea da.

EASEk fase honetan 33 adierazle biltzen ditu: Estatus Juridikoa (kualitatiboa) eta izaera kuantitatiboa duten beste 32, ezagutza eta erabilera bereiziz. Honako eremutako datuak biltzen dira, besteak beste: gaitasuna, jabetasuna, hezkuntza, administrazioa, sozio-ekonomia, kultura, harreman informalak, ingurune digitala eta sozio-demografia.

Proiektuaren Batzorde Sustatzailea euskararen lurraldearen Administrazio nagusiek osatu dute: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zuzendaritza (EJko HPS), Nafarroako Gobernuak Euskarabidea, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa (Iparraldeko EPP), eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2015-2017 bitartean, FEDER Europako finantzazioaren bitartez, POCTEFA europar proiektua izan da.

Soziolinguistika Klusterrak aholkularitza teknikoa ematen dio proiektuari.



Zuzendaria | Iñaki Martínez de Luna

Klusterreko teknikariak | Olatz Altuna eta Belen Uranga

Batzorde sustatzailea



Aldahitz

2010. urteaz geroztik garatzen da Aldahitz lan-ildoak, erakunde publikoen babesarekin eta arloko aholkularitzekin lankidetzan. Ikerketa metodo gisa baliatuz (ikerketa aplikatua, nagusiki), urtez urte gaiaren inguruko ezagutza osatuz doa.

2012an Eusle metodologia sortu zen eta geroztik haren inguruko ikerketan ari da Soziolinguistika Klusterra. 2016an bi tresna berrien garapenari ekin zitzaion: Ulerrizketa metodologia eta Uler-saioak metodologia.

2017. urtean hiru metodologia horien esperientziak antolatu eta garatu ziren erakundeetan, eta ikerketarako datuak jaso. Guztira 11 esperientzia egin dira (Eusle, 5; Ulerrizketa, 3; eta Uler-saioak, 3). Informazio horrekin, bi metodologia berrien lehen prototipoak landu dira.

Horrez gain, Aldahitz Ikerketa – Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016 lana argitaratu da (2015ean eginiko lehen argitalpenari jarraipena emanaz), eta proiektuan ari diren sei erakundeetako kideei aipatu metodologiaren gaineko formazioa eskaini zaie.




Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)

Klusterreko teknikariak | Pablo Suberbiola, Maialen Iñarra eta Asier Basurto

Partaideak | Nerea Ibarluzea (Ahize-AEK), Jon Mentxakatorre (Artez), Ainara Ibañez (Elhuyar Aholkularitza), Kristina Pavo (Emun), Begoña Basterretxea eta Sonia Isasi (EJko HPS), Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia – HBZ).

Babesleak



Arrue

Arrue Proiektua 2003-2004 ikasturtean abiatu zen eta, geroztik, urtero eman zaio jarraipena bere aztergai nagusiaren inguruko lanketari eta analisisiei.

2017an, alde batetik, Arrue 2011-2015 ikerketaren emaitzen zabalkunde publikoa egin da (prentsan eta maila teknikoan). Azterketa horretan, lehen aldiz EAEko ikasleen hizkuntza-erabileraren alderaketa longitudinal bat eskaini ahal izan da, urte berean jaiotako ikasleen erabilerak bi unetan alderatuz.

Horrez gain, beren euskarazko erabileran nabarmentzen diren ikastalde eta ikastetxeen azterketak egin dira. Tipologiak osatu dira, eta horietan oinarrituz, beren ezaugarriak kontuan hartuta batez bestekoa baino euskarazko erabileran nabarmen altuagoak dituzten ikastaldeak aztertu dira.

Bestalde, 2017-2018 ikasturtea hastearekin batera, Arrue Proiektua zabaldu egin da, orain arteko lan-ildo nagusian bi proiektu berri gehituz, bata Ahozketasunaren lanketaren inguruan eta bestea Eusle metodologiaren ingurukoa.



Zuzendaria | Iñaki Martínez de Luna

Klusterreko teknikaria | Pablo Suberbiola

Partaideak | Hezkuntza Saila (Iñigo Barruso, Ibon Olaziregi eta Lucia Torrealday), ISEI (Xabier Aizpurua eta Eduardo Ubieta), HPS (Josune Zabala).

Babeslea



D ereduko kirola

2016an definitu eta abiatutako proiektua da, 2016-2018 aldirako. Lankidetzan garatzen da, EHUko ikerlariak, bi erakunde publikotako lankideak (GFA eta HPS) eta aisialdi arloko bi erakundetako kideak lotuz (Urtxintxa eta Topagunea).

2017ko lan nagusia izan da 2016an abiatutako ikerketaren ondorioetatik abiatuz, kirol taldeetan entrenatzaile eta jokalariekin gauzatzeko moduko eskuhartze esperimental bat diseinatu eta hura aplikatzen hastea, hiru klubetako gazteekin.

Diseinu horren bitartez, eta oro har proiektuan, eskuhartzea eta ikerketa uztartzen dira, eta bide horretatik, haur eta gazteentzat euskarazkoak (D eredukoak, nolabait) izango diren kirol jardueretara hurbiltzeko bide eta modu berriak arakatu nahi dira, besteak beste, protagonisten ahotsak eta bizipenak hurbilagotik ezagutzuz.

Zuzendaria | Jone Miren Hernández (EHU-Antropologia)

Klusterreko teknikaria | Pablo Suberbiola

Partaideak | Jaime Altuna eta Iñigo Beitia (EHU), Begoña Basterretxea (HPS), Nekane Jauregi eta Beñat Egues (GFA), Julene Maia (Urtxintxa), Sonia Perez (Topagunea).

Babesleak



Liderrak eredu

EraLan 3 proiekturaren baitan (2011-2013) administrazioko liderren artean hizkuntza-erabileran portaera eredugarriak sustatzeko zenbait esperientzia garatu ziren, emaitza positiboekin. Esperientzia eta ezagutza horietan oinarriturik, 2017. urtean zehar Gipuzkoako hautetsiei zuzenduriko proposamen praktiko bat landu da.

“Lidergoa”-ren gaia hartu da horretarako ardatz, eta lidergoaren esparruan eskarmentu eta ezagutza zabala duen aditu batekin lan egin da (Aurkene Redondo).

“Nolako lidergoa da nirea? Udaleko arduradunen lidergoak eta aplikazioa hizkuntza gaitan” trebakuntza praktikorako modulu laburra izan da prozesu horren emaitza. 2 orduko 3 saioz osaturiko modulua da, 2. eta 3. saioen artean hiru bat hilabeteko tarteaz uzten duena, aplikazio praktiko baterako aukera eskainiz.

Moduluaren lanketa eta lehen deialdia egin da 2017an, baina lehen saiakeran ez da talderik osatu, eta momentuz ez da praktikan aplikatu.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola

Klusterreko teknikaria | Pablo Suberbiola

Partaideak | Iزارo Ugalde (GFA), Aurkene Redondo (Enbor kontsultoreak)

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa

Proiektuak bi fase ditu. Hala, 2016an proiektuaren lehen fasea landu zen, alegia, aktibaziorako gakoak identifikatzea. Horretarako hainbat esperientzia arrakastatsu aztertu ziren, euskalgintzakoak eta beste arlo batzuetakoak. Proiektuaren hurrengo fasea 2017an abiatu da. Fase honetan esku-hartze pilotuak edo kontrolatuak egiten ari da Soziolinguistika Klusterra.

Hain zuzen ere, bi gune aukeratu dira: Arrasate eta Tolosaldea. Bietan euskalgintzako eta administrazio publikoko eragileekin ari da elkarlanean aktibaziorako bidea lantzen. Bi gune horiei beste bat gehitu zaie 2018an, alegia, Eibar eta han lantzen ari den Akebai ekimena. Proiektuari 2015 bukaeran eman zitzaion hasiera eta 2019an bukatuko da.

Zuzendaria | Zesar Martínez García (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, EHU)

Klusterreko teknikaria | Imanol Larrea

Partaideak | Amaia Balda (Emun), Joxean Amundarain eta Izaro Ugalde (GFA), Helen Armentia (Elhuyar aholkularitza), Mikel Ozaita (Euskaltzaleen Topagunea), Edurne Otamendi (Donostiako Udala).

Babeslea



Gipuzkoako Foru Aldundia



Berba-lapiko

Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza-erabilera ardatz hartuta, hizkuntza-komunitatearen diagnosi orokorrak egin ohi ditu. Diagnosiek laguntzen dute testuinguru soziolinguistikoaren irakurketa zehatzagoak egiten, interbentzio mota askotarikoak irudikatu eta praktikan jartzen.

lido horretatik, abiatu da 2017ko udazkenean Berba-lapiko programa, hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakondu nahi duen egitasmoa. Ahozko hizkuntzaren gaineko proposamenean heldu nahi zaio “Komunikaziorako konpetentzia praktikoa eta eraginkorra eskuratzeko” bidea egiteari (Heziberri 2020), ulertuta “hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritu”ta eraiki daitekeela. Hala, Tolosako laborategiko esperientziak emandako eskarmentu eta ezagutza baliatuko da trebakuntza-ikerkuntza honetan: testuinguru erdaldunetan ikasleen ahozko hizkuntzaren gaitasun eta erabileraren inguruan ikertu nahi da, material berria sortu eta ikasleen komunikaziorako konpetentzietan sakondu, irakasleen prestakuntzarekin uztartuta.

Zuzendaria | Agurtzane Azpeitia eta Idurre Alonso (HUHEZI)

Klusterreko teknikaria | Olatz Bengoetxea

Partaideak | Rontegi eskola, Muskizko ikastola, Berritzegunetako aholkulariak, EHUko HIJEko taldekideak

Babeslea



Berbekin

Bergaran berbazko komunikazioa indartzeko programari 2014an ekin zitzaionetik iragan da laugarren urtea. “Edozein irakasle da hizkuntza irakasle” oinarriko pentsamendutik abiatuta, eskoletan ahozko komunikazioa indartu dadin Soziolinguistika Klusterra ekintza-ikerketa bideratzen ari da hainbat arlotako irakasleekin elkarlanean, bereziki, LHko 3. eta DBHko 1. zikloko irakasleekin.

2016an ahozko hizkuntzaren erabilera indartzen laguntzen duten “praktika onen” bilduma bat osatu zen, eta aztertu zein neurritan hobetu zen ikas-arloen eta hizkuntzaren presentziaren arteko harremana. Ildo horretatik, aurtun, ahozko hizkuntzaren sustapenean laguntzen duten praktika onei erreparatu eta horiek ikastetxe mailan finkatzeko bideari hasiera eman zaio (A fasea). Horretarako, irakasle-taldeari egokitutako hainbat prestakuntza eta mintegi bideratu dira. Era berean, ahozko hizkuntzaren lanketaren ikuspegi berri bat eskaini zaie proiektuan parte hartzen duten kideei, kanpoko esperientzien berri emanez (B fasea).



Zuzendaria | Ines Garcia-Azkoaga (EHU)

Klusterreko teknikaria | Olatz Bengoetxea

Partaideak | Aranzadi Ikastola, Ipintza Bergarako Institutua, Mariaren Lagundia Ikastola, Bergarako Udala

Babesleak



Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia)

Hitanoa lantzeko proiektua da honakoa. Hitanoaren erabilerak euskararen erabileran eta ezagutzan izan lezakeen eragin baikorraz jabetuta ekin ziztaion egitasmoari.

2010 eta 2015 artean hitanoa sustatzeko materiala sortzen, probatzen eta hobetzen ibili da Soziolinguistika Klusterra Azpeitiko eta Zumaiaiko ikastetxe guztietako irakasleekin elkarlanean. Lau urte horietan egindako bidearen azken emaitza aurkeztu zen 2015ean eta ordutik martxan dago azken material berria, bai Azpeitian, bai Zumaian. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitarte.

Azken ikasturtean, materialak praktikara eraman dira hitanoaren erabilera sozialak ezagutu, hitanoa darabiltengana hurbildu eta erabiltzen hasi edo jarraitzeko helburuz.

Soziolinguistika Klusterrak segimendua egin dio Azpeitiko eta Zumaiaiko ikasle eta irakasleekin batera sortutako bideari: batetik, urtean zehar ikasleek egindako lan-bilduma bat jaso da; bestetik, irakasleekin elkartu eta ekintza ezberdinen balorazioa egin da.

Zuzendaria | Olatz Bengoetxea

Partaideak |

Zumaia: Maria eta Jose ikastetxea, Zumaiaiko Herri Eskola, Oikiako eskola, Zumaiaiko Institutua, Zumaiaiko euskara teknikaria.

Azpeitia: Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai, Iraurgi ikastetxea, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI, Azpeitiko euskara teknikaria

Babesleak



Zumaiaiko Udala



Ahokotasuna: prestakuntza saioak eta tailerrak

Bergaran 2017an hainbat formazio eman dira ahozko hizkuntzaren gaiaren baitan. Azken urteetan nabarmen egin dute gora Soziolinguistika Klusterrak bideratutako prestakuntza edo-eta emandako hitzaldiek.

Formakuntza saioak eskaintzeko bi bide hautatu dira: IRALE programaren bitartez eta IRALE programatik kanpo.

IRALE programan 3 formazio mota aurkeztu ditu Soziolinguistika Klusterrak: H409A eta H409B kodedun formazioak (Ahozko hizkuntzaren lanketa hizkuntza normalizazioaren altxotik) eta I kodedun formazioa (Ahozkotasa irakasteko metodologia eta baliabideak). 2017-18 ikasturtean bereziki lurralde ezberdinetako Berritzeguneetan jarri da indarra.

IRALE programaren bitartez ez ezik, Klusterrak hainbat formazio eta hitzaldi eman ditu, zuzenean lotura dutenak gaiaren gainean ikertzen ari denarekin.

Bestalde, "Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?" lantegia antolatu du EHUko XXXVI Uda Ikastaroen baitan, Miramar Jauregian. Bereziki praktikan oinarritu da tailerra: gogoetatu da gai honen gaineko oinarri soziolinguistiko eta pedagogikoez, esperientzia ezberdinen berri izan da, eta ahozko komunikazioa lantzeko jarduerak esperimentatu eta sortu dira.

Zuzendaria | Olatz Bengoetxea

Partaideak | Josune Zabala, ikastetxeak, Berritzeguneak, euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, aisialdiko begiraleak.

Babesleak



eta ikastetxeak

Jendurrean Erabili

Proiektu honen xedea da jendurreko komunikazioan euskara gehiago, hobeto edo eraginkorrago erabili nahi duten erakunde eta eragileei laguntzeko eta jardun hura errazteko bide eta bitartekoak antolatzea.

Horretarako, batetik, “Praktika komunitate” bat abian da. Izaera eta alor desberdinetako eragile sozial zein erakunde publiko eta pribatuen arteko elkar harremana sustatu eta euskarazko komunikazioaren inguruko esperientziak partekatu eta elkarrengandik ikasteko gune aktibo dena. Eta bestetik, prestakuntza saioak eskaintzen zaizkie proiektuko partaideei; komunikazioan, komunikazio digitalean eta berrikuntzan zein praktiken aldaketetan sakontzeko eta trebatzeko balioko dutenak.

Hau guztia, euskararen erabilera publikoa egunerokotasunean nola erraztu eta praktika horretan sor daitezkeen oztopoak nola gainditu ikasteko bitartekoa da. Gaur gaurkoz 25 erakunde baino gehiagok parte hartzen dute proiektuan.



Gipuzkoa Berdinago

2017an martxan jarri zen Gipuzkoako erakundeentzako garapen ildo berezitu bat GFAREN lidergoarekin. Hainbat erakundek prozesu kolektibo bat egin zuten beren egoeraren diagnostia egin, kanpo erreferentziak ezagutu, praktikan jartzeko prest zeuden urratsak kontrastatu eta adierazpen bateratu bat osatzeko. Azaroan aurkeztu zen erakunde multzo honen zoru-komuna jasotzen zuen idatzia: Hizkuntza-Berdintasunera begira, euskararen erabilera areagotzeko elkarrekin egiteko prest daudenaren bilduma.



Zuzendaria | Eduardo Apodaka

Klusterreko teknikariak | Asier Basurto, Uxo Anduaga eta Pablo Suberbiola

Ikerketa taldea | Eduardo Apodaka, Beatriz Zabalondo, Idurre Eskisabel.

Praktika komunitateko kideak | AEK, Artez, Athletic Club, Bai Euskarari Elkartea, Donostiako Udala, ELA, Elhuyar, Emun, EHU, Eusko Legebiltzarra, Getxoko Udala, G, Guggenheim Bilbao Museoa, Kontseilua, Mondragon Korporazioa, Mutualia, Sakanako Mankomunitatea

Gipuzkoa Berdinago | ADEGI, Basque Culinary Center, Bera-Bera Eskubaloia, CAF, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako Udala, DYA Gipuzkoa, EHU, Fagor taldea, Kaiku, Kutxa Fundazioa, Kutxabank, Laboral Kutxa, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Real Sociedad, SD Eibar.

Babesleak



HAUSNARTU, euskal soziolinguistika sariak

HAUSNARTU Soziolinguistika Sarien X. edizioa izan da 2017koa. Urtero bezala hainbat jakintza arlotatik euskal soziolinguistikari ekarpena egiten dioten lanak jaso dira. Horien artean irabazle geratu direnak honakoak dira:

- **Lehen saria:** Urko Ikardo Enparan, “Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean” izeneko lanagatik.
- **Bigarren saria:** Jon Ander Kuartango Atxa, “Euskararen ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean” lanagatik.
- **Hirugarren saria:** Garikoitz Goikoetxea Etxeberria, “Euskarazko hedabideen kontsumoa Tolosaldean” lanagatik.

Sari-emate ekitaldia Baionako unibertsitateko Iker Zentroaren egoitzan izan zen. Era berean, 2017ko HAUSNARTU Sarietara aurkeztutako lanekin osatutako BAT Soziolinguistika Aldizkariaren zenbaki monografikoa (105.a) argitaratu eta aurkeztu zen ekitaldi berean.



Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna

Epai-mahaia | EJko HPSren ordezkaria; GFAko HBZren ordezkaria, EHUko irakasle bat eta Proiektuaren zuzendaria. BAT Argitalpen Batzordearen laguntza teknikoa.

Klusterreko teknikariak | Belen Uranga, Isabel Godinez, Asier Basurto

Babesleak



BAT Soziolinguistika Aldizkaria

BAT Aldizkaria 1990. urtean jarri zuen abian SEI Elkarteak Jose Luis Enparantza Txillardegiren ekimenez. Soziolinguistika Klusterrak bere gain hartu zuen 2004an, lau zenbaki urteko publikatzeko zeregina.

Aldizkariak, zenbaki bakoitzean gai zentral bat monografikotzat hartuta, ezaugarri zientifiko jasoak, eta kalitate zein zorrozatasun-maila betetzen duten artikulua argitaratzen ditu. Gai horiek euskal soziolinguistika esparruko interesekoak izan daitezke edota Euskal Herrian antolatu diren ikastaro edota jardunaldi berezituen ingurukoak. Helburua da, beraz, sortzen den ikerketa zientifikoaren eta aplikazio hausnartuaren inguruko lanak dibulгатzea.

Zenbaki bakoitzari beste kolore bat emateko, ordea, monografikotik harago dauden bi artikulua argitaratzen dira ale bakoitzean; Euskal Herrian sortu den aparteko lan baten inguruko Gurean atalean, edo nazioarteko ikuspegia osatzen laguntzen duen artikulua bat Munduko Soziolinguistikaren Leihoan.

2017an argitaratutako zenbakiak:

102.a: IX. HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak

103.a: Euskaltzaleen Topaldia. Euskararen herria, zubiak eta palankak

104.a: Hitzun berriak

105.a: X. Hausnartu. Euskal Soziolinguistika Sariak

Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna

Argitalpen Batzordea | Estibaliz Amorrortu, Maria-Jose Azurmendi, Beñat Garaio, Lionel Joly, Jone Miren Hernandez, Inma Muñoa.

Klusterreko teknikariak | Belen Uranga, Isabel Godinez, Asier Basurto

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Soziolinguistika Albistaria

2016tik bi astean behin zabaltzen da albistari edo newsletter digital hau. Zenbaki bakoitzean 15-20 albiste biltzen ditu, bost atal nagusitan antolaturik: Soziolinguistika Klusterrari buruzko albisteak (1), ikerketak (2), jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak (3), liburuak eta argitalpenak (4) eta bestelakoak (5). Euskal Herriko eta nazioarteko soziolinguistikako erreferentziei (ikerketak, hitzorduak argitalpenak) molde arin eta zuzen batean jarraipena egiteko tresna baliagarria da.

2017an 7. zenbakitik 27.era artekoak zabaldu dira.

Klusterreko teknikariak | Maialen Iñarra, Asier Basurto, Imanol Larrea

Partaideak | Amaia Rodriguez (EMUN)

Babeslea



Gipuzkoako Foru Aldundia

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK



Urtean zehar hamaika ekitalditan parte hartu du Soziolinguistika Klusterrak, bere proiektuekin lotutako edukien bidez edo kideen ekarpenarekin:

- **Euskal Herriko hizkuntzen erabileraren 2016ko kale-neurketaren emaitzak hainbat gunetan aurkeztu dira:**

- » Mintzalasai ekimenaren baitan, Biarritzen (2017-09-26)
- » Euskarabideak antolatuta Nafarroako udal teknikarientzat aurkezpena (2017-10-16)
- » Iruñeko Udalak antolatuta emaitzen jendaurreko aurkezpena (2017-10-16)
- » Eusko Legebiltzarrean agerraldia, Kultura, Euskara eta Kirolari buruzko Batzordean (2017-10-18)
- » Euskaltzaindiaren Jagon Jardunaldian, Gasteizen, Arabako kale-erabilera datuei buruz (2017-11-17)
- » Gipuzkoako Batzar Nagusietan agerraldia, Kultura eta Euskara Batzordean (2017-11-30)

- **Ahozotasuna eta irakaskuntzaren inguruan aurkezpen hauek egin dira:**

- » AEKren VI. Didaktika Topaketan “Ahozko hizkuntzaren lanketa helduen euskalduntzean” (2017-01-28).
- » Gasteizko Berritzegunean bi mintegi ahozotasunaren inguruan (2017-10-27 eta 2017-11-16)

- **Hizkuntza ekologiaren eta lankidetzaren inguruko ekimenetan parte hartu dugu:**

- » Garabideren eskutik Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoan “Munduko Hizkuntza Aniztasuna eta Hizkuntza-Ekologia” lan-saioa bideratu dugu (2017-10-08).
- » Munduko Hizkuntzen Ondare Unibertsalaren Katedra (MHOUK) eta Manuel Iradier Fundazioak antolatuta “Hizkuntza EHUko lankidetzeta eta Afrikako hizkuntzak” mahai-inguruan parte hartu dugu Gasteizen (2017-03-22)

- **UEUK antolatutako hainbat ekintzatan hartu dugu parte:**

- » Ikerlari kongresuan “Euskarazko aldizkariaren etorkizuna” mahai-inguruan BAT Soziolinguistika Aldizkariaren ikuspegia azaltzeko, Iruñean (2017-05-11).
- » “Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen” mahai-inguruan Gasteizen (2017-05-30ean).
- » Hizkuntzalari Euskaldunen III. topaketan “Euskal soziolinguistikan buru-belarri ikertzen: Soziolinguistika Klusterraren ibilbidea” hitzaldia, Baionan (2017-07-04).
- » LUHI Lurraldea eta Hizkuntza graduondo amaierako lanen tutore eta mahai-inguru bateko partaide.

- **Beste erakunde batzuek antolatu dituzten proiektuetan partaide izan gara:**

- » Eusko Ikaskuntzaren e5 (Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen) mintegiak.
- » Bagerak antolatutako jardunaldian “Tokian tokiko hizkuntza aktibaziorako gakoak” aurkezpena, Donostian (2017-10-18).
- » Topaguneak antolatutako “Topaldia” jardunaldiko saioen edukiak BAT Soziolinguistika Aldizkarian argitaratu dira.
- » GFAk antolatuta Gipuzkoako Euskararen Foroan eta Gipuzkoa 2026 proiektuko bileran partaide.

- **Nazioarteko bi kongresutan partaide izan dira Klusterreko kideak, bere proiektuen inguruko aurkezpenekin:**

- » “Congreso Internacional sobre Revitalización de Lenguas Indígenas i Minorizades”, Bartzelonan (2017-04-20)
 - ▶ “Hizkuntza-lankidetzaren, esperientzien elkartrukatzea eta biziberritze estrategiak” mahai ingurua.
 - ▶ “Metodología para medir el uso lingüístico: VII. Medición del Uso Lingüístico en el País Vasco”.
 - ▶ “Jendaurrean erabili”: un proyecto de investigación-acción en torno a la comunicación pública en euskara.
- » “XVIII Congreso Internacional de la SEDLL”, Ciudad Realen (2017-11-29)
 - ▶ Erabiltzen ditugun testu-liburuek zenbat eta nola laguntzen dute ahozko hizkuntzaren erabileran eta lanketan?



Soziolinguistika Klusterra antolatzaile, laguntzaile, aholkulari edo partaide da beste hainbat erakunde eta ekimenetan:

- NPLD (Network to Promote Language Diversity) sareko partaide Europako hizkuntza gutxituetako gobernu eta elkarteetako erakundeekin batera.
 - » Ekainean Vall di Fassin Batzar Orokorra
 - » Azaroan, Bruselan, Hizkuntza Gutxituen Gaur Egungo Erronkak konferentzia.
- Garabideren Zuzendaritza eta Kontseilu Nagusiko kide, baita Ikerketa eta Nazioartea lantzeko taldekoa ere.
- Munduko Hizkuntzen Ondare Unibertsalaren UNESCO Katedran.
- Asmoz Fundazioaren HIZNET Hizkuntza Plangintzako graduondokoa.
- Euskaraldia ekimenaren sustatzaile; prestatzeko egin diren hainbat mintegitako partaide.
- Gasteizko Udalak antolatzen diharduen HIGAI, Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen 2. Topaketan, Batzorde Zientifikoko kide.

Harreman mailan, erakunde eta norbanako batzuekin izandakoak aipatzeak merezi du:

- Berritzegune Nagusiko aholkulariekin eta Eusko Jaurlaritzako GARATU programako (Irakasleen etengabeko formaziorako plana) kideekin.
- Arwel Tomos Williams Galesko Bangor Unibertsitateko tesigilearen bisita jaso da Klusterraren bulegoan urtarrilean.
- Bakea eta Duintasuna elkartearen eskutik bisita, Europako hizkuntza gutxituetako irrati libreetako kideek (2017-06-19).
- Galizako Hizkuntzaren Akademiako soziolinguistika arloko kideekin harremana. Soziolinguistika Klusterraren barne mintegian parte hartu dute, galegoaren egoeraren inguruko aurkezpen zabalaren bidez (20107-10-24).
- Alkarbide, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunearekin.





Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556 / 629 350 095

kluster@soziolinguistika.eus
www.soziolinguistika.eus

 [slklusterra](#)  [@slklusterra](#)

